

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL TRENBIDE SAREAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2015

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak joan den otsailaren 27an aho batez onartu zuen Euskal Trenbide Sarearen ekonomia-finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2015eko ekitaldiari dagokiona. Txostenak Osoko bilkurako kide batek egindako boto partikularra du.

Txostenak ondorioztatu du sozietateak zuzentasunez bete duela 2015eko ekitaldian bere ekonomia-finantza jarduera arautu duen lege arautegia eta zenbait ez-betetze azaleratu direla kontratazioaren atalean (2 hirugarreni zuzenean esleitutako 139.191 euro) eta langileriaren atalean (txanda-kontratu bati lotutako erretiro partziala hartutako 19 langileri osagarrien ordainketa, ordainsariaren % 100era arteko aldea osatzen duena).

2015eko ekitaldiko urteko kontuei dagokienez, HKEEk aldeko iritzia plazaratu du, nahiz sozietatearen ondare garbiari 188,9 milioi euroren doiketa egin dion, izan ere, ez ditu erregistratu ondare garbian jasotako diru-laguntza ez itzulgarrietatik eratorritako ondorio fiskala, ez eta oinarri zergagarri negatiboetatik sortutako kreditu fiskalak eta etorkizunean gauza litezkeen dedukzioak. Gainera, HKEEk ez du 87 milioi euroren kontularitzako balio garbia duten aktibo jakin batzuen balorazioari buruzko iritzirik eman, aktibo horien banako erregistrorik ez izateagatik; ez eta EAeko trenbideetako jabari publikoko beste ondasun batzuk erregistratzearen balizko ondorioari buruzkorik ere, urteko kontuetan Sozietateari atxikipen erregimenean esleitutakoak, izan ere, ez du eskualdatutako trenbide lerro hauen ez zerrendarik, ez ondasunen baloraziorik ere eta honenbestez, horien erabilera eskubideari ezargarria zaion balioaren gainekorik.